

Mari Arrillaga

• PERTSONAIA •



2007ko irailaren 9a

ARGIA

12

«Frontoitik bota gintuzten, gizonei lana kentzen genielako»

Ezkonduta uztartzeko baliatu dute aurtengo uda lagunek. Ondarroako Antiguako ermitan da errezoa. Senargaia eliza atarian zain. Emaztegaia, belu. Senitarteko zenbait eta gonbidatu andana txutxumutxuka arbolapean. Halako batean, han non datorren ibilgailu dotorea, lorez apaindua. Bertatik jausi da neska pinpirina. Atzeraxeago, andregaiaren ama behar duena, emakume adin handikoa besotik helduta dakarrela: Mari Arrillaga da, erraketista izana...

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

Mexikon ezagutu nuen lehenengo erraketista...
Mexikon da nire ahizpa Juani ere! Erraketista zen hura ere, Arane II.a izenarekin jokatzen zuen hark.

Julita Beraza ezagutu nuen Mexikon. Erraketista fina izanikoa.
Pilotari ona zen Julita... Bizi da oraindik?

Ez dakit, orain dela hamar bat urteko kontuak ditut nik.
Ez dakit behin ere beraren kontra jokatu nuen. Bartzelonan bertan bost frontoi zeuden, emakumeenak. Gizonezkoenak, bi bakarrik. Gero, zer egin zuten eta gu denok kalera bota, gizonei lana kentzen geniela eta.

Moscardo jeneralaren erabakia.

Moscardo txerri harexek! Tripandi halakoak! Gizonezkoei lagundu, ondo, baina ez behintzat emakumeei jatekoa kendu!

Harrezkero kito erraketistak hemengo partean.
Kendu egin zituen hark eta!

Garai batean zuek benetako figurak zintzen. Tabako paketeetan ere zuen kromoak ageri ziren...
Bai, bai, polito jokatzen genuen, ondo.

Zer behar du jokalaria ona izateko?

Bista ona, menderatzen jakin. Indarra eta pilota edozein lekutara bota, ez! Taktika behar da hor. Indarra ere bai, arintasuna... Denak behar dira.

Gazteak berezko du arintasuna.

Bai, baina arintasuna aprobetxatzen jakin behar da. Arina baldin bazara baina hara eta hona besterik gabe baldin bazabiltza ez zabilta ondo. Pilota datorrenean, hari kontra egiteko modua jakin behar duzu, tantoa zeuk egiteko.

Binaka ala banaka?

Berdin da binaka ala banaka jokatu. Guk, esaterako, ipintzen zizkiguten partidak jokatzen genituen. Baita egunean bi partida ere! Hainbeste neska izan erraketan eta bi partida jokatu behar! Akabo eginda ailegatzen ginen azkenean!

Aurrelari jokatu zenuen zuk.

Nortasun agiria

Maria Arrillaga Garate (Elgoibar, Gipuzkoa, 1918) Arane baserrian jaioa, etxeko izena hartu zuen pilotan. Arane I.a izan zen, bera izan zen eta neba-arrebetan zaharrena. Ondoren etorri zen Arane II.a ere, Mariren ahizpa gazteagoa. Hamasei urte zituela hasi zen jokatzen Elgoibarko frontoian eta Bartzelonan jokatzen ari zen hamazazpirekin, 1935ean. Bost urte egin zituen Katalunian, Nuevo Mundo, Principal Palace eta beste zenbait pilotalekutan jokatuz. Ondoren, urtebete egin zuen Castellon, bi Logroñon eta sei urte Kanariar Uharteetako Tenerife eta Las Palmasetako frontoietan. Azkenik, urte bat egin zuen Valentzian. Bertan hartu zuen erretiroa, 36 urte zituela, Joseba Gazagaetxebarria pilotariarekin ezkondua zegoela, eta alaba zuela... Oraindik ere badu kezka: "Azkeneko partida jokatu nuenean, bada, orduantxe ari nintzen zer edo zer irabazten!".



Mari Arrillaga 1910



Eta nire ahizpak atzelari. Aurrekoak hankak bizkor ibili behar izaten ditu, atzekoa eta aurrekoa, biak zaindu behar ditu. Atzekoak, haraxe bakarrik. Tanta ere aurrean egiten da, aurrelariak egiten du. Eskuz ere, atzelariak tanto gutxi sartuko dizkio aurrelariari. Aurrelariak egin behar du! Oraintxe ere partida asko ikusten ditut telebistan nik. Askok gustatzen zait.

Partidak jokatzen zenituzten, eta kinielak ere bai.

Bai, kinielak ere bai. Bartzelonan kinielekin irabazten zen dirua. Gerraren azkena zen eta jendea frontoian! Sinetsi ezinik egoten nintzen ni, bete-bete eginda frontoia, gero! Kiniela merkea izaten zen, kalean saltzen zen, erosi eta frontoira jendea, jokatzeraz.

ARGIA 14 Kinielak ematen dirua, nahiz eta pilotari denek partida nahiago izan...

Errespetua

“Nik, inork erraketista izan nahiko balu, animatuko nuke, bai, bai, bizimodu ederra da. Norberak jakin behar du bizimodu hori kontrolatzen, bestela oilarrak kukurrukuka hasten dira laster; frontoiko nagusiak eta. Eurak, agindu! Eta kontua ez da beti pilotaria jokatzeraz irteera, errespetu pixka bat ere behar da jokalariaentzat”.

Baita nik ere! Hala ere, hilean hogeita sei partida eta gehiago ere jokatuta nago ni. Egunean bi eta! Egun batean irabazten zenuen bat larri-larri eta hurrengoan gogorragoa jartzen zizuten! Horrela!

Hamazazpi urte zenituen 1935ean Bartzelonara joan zinenean.

Etxean banoala esanda. Etxean “joan!” esan zidaten, eta esaten diren zera horiek denak: ondo jan, kontuz ibili, zintzoa izan, zaindu zeure burua... Koadrila ederra ginen etxean, zazpi senide, eta neu nagusiena. Zazpigarrena hil egin zen. Julia eta biok pilotari irten ginen. Beste inor ez. Nahikoa ginen bi!

Bartzelonan zinen gerra hasi zenean.

Han ez zegoen ezer. Guk ez genuen beldurrik izan. Jendea normal joaten zen beharrera. Bai, etortzen ziren noiz edo noiz hegazkin batzuk

Palmatik, botatzen zuten zaparradaren bat, hiru-lau bonba edo, bazterrak apurtu eta hanka! Jendeak ez zion hari kasurik egiten. Eta gu ere, hantxe, pilotan, Nuevo Mundo frontoian. Polita zen frontoia gainera, frontisa eta errebotea, ezkerreko paretarik gabe. Sinetsi ezin zenbat jende sartzen zen han. Tenisean bezala zen han, barruan sartu behar zenuen pilota. Pareta ertzean jo baina barrura etortzen bazen, bale! Baina ertzean jo eta kanpora joaten bazen, adios! Han ez zegoen ezkerreko paretarik! Geroko baten egin zuten.

Nuevo Mundo pilotalekutik, Bartzelona frontoira. Handik, Castellora...

Geuk inauguratu genuen frontoi hura, bai eta Tenerifekoa ere. Las Palmas eta Tenerifen, bietan egon nintzen jokatzeko. Baita Logroñon ere. Agustina Elorza eibartarrak ere hantxe jokatu zuen nirekin.

Zein izan zenituen kontrariorik txarrenak?

Erraketista onen-onenak hemen, eibartar bat, Toni, kaletarra. Baina ni baino nagusiagoa zen eta ez nuen behin ere harekin jokatu. Nire garaian, kontrariorik txarrena Txurruka.

Maria Txurruka, elgoibartarra, zu bezala. Zu San Pedroko Arane baserrikoa, hura San Lorentzoko Gelatxon jaioa.

Huraxe. Maria Txurruka. Horrek indarra? Zaldia ere akabatuko zuen, haren indarra!

Bai hark, bai zuek –bi ahizpak, esan nahi dut–, eskolara joan eta auzoko elizako paretaren kontra ikasi zenuten pilotan.

Beste jolasik ez zen orduan. Soka-saltoa, txori habia bila ibili... Horiexek ziren gure jolasak oraindik ume ginenean, zortzi bat urte genituenean. Baina pilota zen, batez ere. Geuk egiten genuen pilota, geuk umeok, ez gurasoek! Barruan goma, gero artilea, gainean beste hari bat gogorragoa, josi zelán edo halan, eta harekin jo eta kean!

Neskak pilotan, eta non ziren mutilak?

Eskolara gutxi joan mutilak eta horixe!

Auzoan hasi zineten pilotan eta herrira jaitsi gero, Kamiñeroko frontoira. Hantxe trebatu zintzuten Eibartik joandako bi gizonak, inondik ere beren enpresan hartzeko pilotari bila zebiltzanak inguruko herri denetan: Eibar, Elgoibar, Ermua, Markina, Berriz... Denetan zen erraketistaren bat, edo bat baino gehiago.

Gizon haiek etortzen ziren eta pilotan erakusten ziguten. Etortzen ziren, ordu erdi bat edo haien esanera egin eta kito! Nik hilabete eta erdi egin nuen ikasten, bakarrik, Kamiñeroko frontoian, Elgoibartik Azkoitirako bidean, Txarridunatik goraxeago joan eta eskuma-

Azkeneko partida

“36 urterekin jokatu nuen azkeneko partida, Valentzian, 1953an uste dut. Ordurako Ondarroan bizi nintzen, ezkontuta, eta umea ere baneukan. Baina deitu egin zidaten eta joan nintzen. Chiqui frontoian jokatu nuen, bertako baten kontra. Emili zuen izena. Ni baino gazteagoa zen, jokatzailer ona, indar handia zeukan... baina bentzutu egin nion. Ederra eman nion hebaindua eta hantxe geratu zen. Oraindik gordeta daukat biharamuneko egunkariaren ebakina: partida ona izan zela esaten zuten. Hura izan zen nik azkeneko jokatu nuen partida”.

“Joan hadi fregatzera!”

“Jendeak estimutan ginduzkan. Deiarar askorik ez ziguten egiten. Behin edo behin, ‘joan hadi fregatzera!’ entzun behar izan genuen. Beti dago ganberroren bat, baina ez zen horrelako askorik izaten. Izan ere, kiniela jokatzan zen eta irabazten zuenak diru mordoia irabazten zuen... Deiarar egiteko motiborik ere ez baina zera hura ez zait ahazten: ‘Joan hadi fregatzera, bat ere ez dun asmatzen eta!’. Osterantzean txarrak ez genuen izan. Geuk ere ez genion inori txarrak egiten eta”.

rantz, San Roke aldera. Ez dakit oraindik han dagoen frontoi hura... Dena aldatuta dago inguru hura.

Zer duzu gaur egungo erraketen kontra?

Gaurko erraketa arinak? Ez, ez, ez... Arinekin ez. Arinak ez du gorputzik. Hiru erraketa mota probatu ditut, eta segituan bota nituen besteak. Niri, Mutrikuko Zumalaberenak! Erraketa ederrak Zumalaberenak, bildotsaren hesteekin egindako sarea eta! Oraindik gordeta dauzkat garai hartako bi. Plastikozkorik ez ekarri niri gero! Arinak? Erraketak sostengua behar du, sostengua! Fabrika jartzeko asmotan zabiltzate, ala?

Txarra ez, fabrika jartzea.

Bada, erraketa fabrika jartzen baduzue, egin erraketa plastiko gogorrarena. Kar, kar, kar... Guri ere askatzen zitzaizkigun sokak, edo apurtu, eta zenbat! Asko balio zuten. Apurtutakoan, batzuetan, tenisekoen erraketeekin jokatzan genuen. Arinagoak izatea, horixe txarra!

Pilotak...

Narruzkoak ziren, bizi-biziak, goma zeramaten barruan.

Horien kolpeak ez dira txorakeria, horratik!

Ez horixe. Hil ere egin ziren batzuk, pilota kolpeak hartuta. Ez dakit non gertatu zen, baina ezagutzen dut hil zen neska haren familia... Zuk badakizu zer abiada hartzen duen pilotak? Hura abiada! Ene, eskuz pilotak hartzen duen abiada handiena ere ez da ezer erraketaz jota hartzen duenarekin konparatuta. Dziuuu!, eta errebotera. Aurrelariak hartu eta atzera berriz ere... Nik errebesa neukan gogorra. Pilota bizia dator? Zuk ez duzu hura jo behar, eutsiz jo behar duzu, eutsiz, bestela galdu duzu tantoa.



Bai, eta bizitasuna ere bai. Zestan hartu egiten da pilota, guk ez, datorren abiadan hartu, haren abiadari eutsi eta zelan datorren, jo.

Hori dena ezin ikasi Elgoibarren Kamiñeroko frontoian hilabete eta erdian...

Ez! Hori hantxe, Bartzelonan jokatzan. Pilota erabiltzen jokatzan ikasten da. Orain eskuz hasi diren profesional gazteak bezala. Oraindik ez dakite, baina igartzen zaie, badatozena. Nik, behintzat, igartzen diet jokatu duten ala ez duten.

Zu ere kolpeak hartutakoa zara.

Bai, neuk ere kaskarreko ederrak dauzkat buruan. Oraintxe ere, begitako minak ailegatu zaizkidala nabil. Guk ez genuen kaskorik behar. Guk zaindu ondo pilota, besterik ez. Behin ahizpak eman zidan ederra, egundo halako kolperik! Burutik behera odola dariola, pixka bat sendatu eta jokatzera! Jesus!

AZKEN HITZA

Atzera pilotan

“Bertan jokatzea dut oroitzapenik ederrena. Txarrena, ostera, garai hura lasterregi pasatua. Oraintxe ere, niri galdetu berriz jaio eta zer ikasiko zenukeen eta ‘nik atzera pilotan!’ erantzungo nuke”.

Ez zen hura lesio bakarra izan...

Lesioak beti izaten ziren, besoan, hankan... Edo nekatuta zeundela. Eta, hala ere, partida agintzen zizuten, eta orduan, esan egin behar, bestela beti partida, egun batean gogorra, eta hurrengoan gogorragoa!

Entrenamendu eta antzekorik egiteko betarik ez, eta premiarik ere ez.

Ezer ez, ezer ez. Bagenituen medikuak eta masajistak, baina haiek, pixka bat ikusten gintuzten jokatzeko eta “barrura, jokatzera!”. Horixe esaten ziguten. Hainbeste neska jokatzeko, eta oraindik falta jendea.

Zure kontrario txar Maria Txurrukak zioen zuok, erraketistok, garai hartako hippyak zinetela.

Hippyak? Sano-sano esango zuen hark, xelebre hutsa zen, oso neska majoa!

Zioen, garai hartan Bartzelonara, Valentziara, Madrilera, Mexikora... joaten ziren neskak nor edo nor zinetela.

Baliteke! Nire ahizpa Mexikora joan zen, esaterako. Baina hura aparte dago, gero! Dena dela, gauza bat garbi, gutxi ez ginen neska pilotariak, e! Ikaratzeko beste pilotari ginen! Bartzelonan bertan, zenbat! Eta tenisean ibilitakoek ere frontoian jokatzeko zuten. Eta zelan jokatu! Eta erraketa menderatu? Aurretik eta atzetik ere jotzen zuten haiek pilota! Ederto jokatu!

Eta alderantziz? Zuek tenisean jokatzeko?

Ez genuen probarik egin. Denetik jokatzeko genuen geuk ere, baina... Oraintxe ere, pentsatu zer dirutza irabazten duten tenisean. Haiei utzi tenisean, eta guri erraketan jokatzeko kendu. Txarto portatu ziren! Gainera, sasoi hartan lan egindako jende askok kobratu egiten du. Kontratuan ere halaxe jartzen du, ez daukagula eskubiderik diru-laguntza eskatzeko. Huraxe jarri guri kontratuan, eta izorratu! Ibili gara erraketistak, kobratuko ote dugun, baina ezetz! Kendu zuten, eta kito.

Orain alderantziz da, emakumezkoa kiroletan bultzatzeko garaian gaude.

Bada, gurea kendu zuten, eta agur! ■